



GOBERNU BATZARRA

2025.04.15

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi

Ez dira bertaratu:
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren hamabostean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2025eko apirilaren 8koa.
2. Onartzea Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak eta Tolosako udalak, udalean praktikak egiteko sinatutako lankidetzahitzarmenaren arabera, ikasle bat praktiketan jarduteko baimena ematea diruzaintza sailerako.
3. Onartzea Tolosako Udalaren eta La Caixa Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenean egindako aldaketak.
4. Onartzea Asfaltos Urretxu SA-ri 2018ko asfaltatze-lanen obra kontratuari lotutako 12.396,28€-ko bermea itzultzea.
5. Onartzea Parking Larramendi ABEEri 7 R E.7 "Gorostidi-Voith" eremuko 2. Partzelaren erdiko plazan lurpeko aparkalekuak eraikitzeke kontratuari lotutako 62.863,15€-ko abala itzultzea.
6. Onartzea Sumalim SL-ri Tolosako lurrarrenda pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko material-hornidura kontratuari lotutako 2.179,01€-ko bermea itzultzea.



7. «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua. Behin betiko onespeneraren ondotik aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ebaztea.

8. Dekretu honen berri ematea:
2025/963 Dekretua: 2025/8 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO APIRILAREN 8KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSALDEKO LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUAK ETA TOLOSAKO UDALAK, UDALEAN PRAKTIKAK EGITEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ARABERA, IKASLE BAT PRAKTIKETAN JARDUTEKO BAIMENA EMATEA DIRUZAINZTA SAILERAKO.

IKUSIRIK

LEHENA.- Giza Baliabideetako arduradunak txosten teknikoa luzatu du, honakoa adieraziz:

Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak, bertako ikasle batek (Administrazio eta Finantza ikasketak egiten ari dena) Tolosako udalean praktikak egiteko proposamena luzatu du. Horretarako, Tolosako udalak Lankidetza hitzarmen bat sinatu du Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuarekin. Praktikaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Praktikaldia diruzaintza sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko maiatzaren 7tik 2025eko maiatzaren 28 arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Nekane Mujika Sueskun izango da.
- Ikastetxeak proposatutako ikaslea Irati Zuloaga da.



KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. s) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Udalbatza. Bestaldetik, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 dekretuaren bitartez, lankidetza hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2025eko otsailaren 18an Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak eta Tolosako udalak, udalean praktikak egiteko sinatutako Lankidetza hitzarmenaren arabera, ikasle bat praktiketan jarduteko baimena ematea, honako ezaugarrien baitan:

- Praktikak diruzaintza sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko maiatzaren 7tik 2025eko maiatzaren 28 arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Nekane Mujika Sueskun izango da.
- Lanbide Heziketa Institutuak proposatutako ikaslea Irati Zuloaga Aizpurua da.

BIGARRENA- Akordioa Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuari jakinaraztea.

3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA LA CAIXA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENEAN EGINDAKO ALDAKETAK.

IKUSIRIK

Tolosako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita lau azaroaren hemeretzi egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuen «ONARTZEA LA CAIXA FUNDAZIOAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA» hiru arlori eragiten zien klausulak aldatuta: erantzukizun zibilararen aseguruia, datuen babeserako klausula, eta izaera bereko programekiko eskusibotasunari zegokionean.



La Caixa erakundeak adierazi zuen onartutako hitzarmen horretan egindako aldaketa horiekin ez zegoela erabat ados, eta 2024ko azaroaren 27an egindako koordinazio-bileran adostu zen hainbat klausula berridazteko konpromisoa, beti ere bi aldeek beharrik aintzat hartuta.

Lanketa hori eginda, 2025eko otsailaren 10ean luzatu zuen La Caixa Fundazioak bere adostasuna, eta klausula horiek berridatzita hitzarmenaren proposamen berria bidali zuen. Horien gainean Tolosako Udalaren aldetik beste ekarpenak egin ondoren, eta hitzarmenaren azken bertsioa joan den martxoaren 31n ontzat eman zuten bi erakundeetako teknikariek, 2024ko azaroaren 19an onartutako hitzarmenetik ondoko klausula hauek berridatzita: 2.2; 4; 7.2; 8; 10; 11.

Lanketa honen ondoren, beharrezkoa ikusten da proposamen berria egitea, berridatzitako klausula horiek onartu daitezen.

KONTUAN HARTURIK

Gizarte zerbitzuen eta Osasunaren Sailean aztertu da “LA CAIXA” erakundearen eta Tolosako Udalaren artean zenbait klausula berridazteko proposamena, eta arduradunak 2025eko apirilaren 1ean sinatutako txostenean udalerrri honen interesekoa dela irizten duela adierazi du eta honako proposamena egin du:

LEHENA.- “LA CAIXA” erakundearen eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren honako klausula hauek aldatzea, adostutako berridazketa ontzat emanez: 2.2; 4; 7.2; 8; 10; 11.

BIGARRENA.- Mantentzea gainerako erabaki guztiak bere horretan, eta aplikatzea klausula berridatziak erantsitako hitzarmenean.

2025eko apirilaren 4an, Idazkaritzako teknikari juridikoak txosten juridikoa sinatu du honako proposamenekin:

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta La Caixa Fundazioaren arteko Hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egitea, betiere txosten juridiko honetan zein txosten teknikoan zehaztutako baldintzak betetzearen menpe.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmenean egindako aldaketak onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzailatza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.



2025eko apirilaren 9an Kontuhartzaitza Sailak izapidea itxi du, espediente hori “dagoeneko fiskalizatuta” dagoela adieraziz.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- “LA CAIXA” erakundearen eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren honako klausula hauek aldatzea, adostutako berridazketa ontzat emanez: 2.2; 4; 7.2; 8; 10; 11.

BIGARRENA.- Mantentzea gainerako erabaki guztiak bere horretan, eta aplikatzea klausula berridatziak erantsitako hitzarmenean.

HIRUGARRENA.- Honako Klausulak dituen lankidetzaren hitzarmena sinatzea “La Caixa Fundazioarekin”, eta bertan jasotakoa egikaritzea.

Lehena.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Tolosako Udalari lotutako adinekoentzako gizarte-zentroetan La Caixa fundazioaren Adinekoen Programa garatzeko esparrua ezartzea. Programa horren bidez, La Caixa fundazioak zentro horien esku jartzen du erabiltzaile diren adinekoentzako prestakuntza-jardueren eta gizarte-proiektuen sorta bat. I. eranskinean daude deskribatuta.

II. eranskinean zehatz deskribatuta daude Adinekoen Programa osatzen duten prestakuntza-jarduerak eta gizarte-proiektuak, eta horien jarduera-ildoak, bai eta horiek antolatze eta kudeatzeko kontuan hartu beharreko prozedurak ere.

Bigarrena.- Alderdien konpromisoak

2.1. Tolosako Udalaren konpromisoak

Alde batetik, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du jarduerak eta proiektuak bultzatu, horiei buruzko informazioa eman eta horietan laguntzeko, eta lagundu egingo du horiek behar bezala gauzatzeko behar den antolaketan.

Era berean, Tolosako Udalak bermatuko du hitzarmen honetan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak behar bezala garatzeko behar den espazioa, eta bere gain hartuko du espazioak behar bezala funtziona dezan egin beharreko zaintza- eta mantentze-lanak, eta horixe izango da Tolosako Udalak hitzarmen honen harira bere gain hartuko duen konpromiso ekonomiko bakarra.

Bestalde, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du La Caixa fundazioarekin egindako hitzarmenean eragile proaktiboa izateko zentroko informatika-gelan instalatutako ekipo informatikoak behar bezala zaintzeko eta erabiltzeko.



Era berean, ikasgeletan ekipo informatiko eramangarri berriak instalatu, eta hala, kalitatezko eta errendimendu handiko zerbitzua eskaintzeko, eta prestakuntza eta zerbitzuen edukia zabaltzeko eta modernizatzeko —horien balio-aniztasuna ahalbidetuta—, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du III. eranskineko jardunbide egokien gida betetzeko.

Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin batera, ezinbestekoa izango Udalak izendatutako zentroko eragile batek ere sinatzea La Caixa fundazioaren ikasgeletako ekipo informatikoak kudeatzeko eta erabiltzeko protokoloa.

2.2. La Caixa banku-fundazioaren konpromisoak

La Caixa fundazioak, bere aldetik, II. eranskinean deskribatutako jarduerak eta proiektuak bultzatzeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, behar diren baliabideak jarriko ditu, eta soilik jarduera horiek garatzeko izango dira.

La Caixa fundazioak bere gain hartzen du, halaber, informatika-gelako ekipo informatikoen, ikus-entzunezko materialen eta altzarien mantentze-lanak egiteko ardura, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ongi funtzionatzen dutela bermatzeko.

Iturriza eta Harizpe elkarteek indarrean izango dute haien lokalean jarduerak egin ahal izateko eskatzen den erantzukizun zibileko aseguru. Hitzarmen honetan adierazitako zerbitzuen ondorioz kalterik sortzen bada, pertsonalak zein materialak, aseguru hori egingo da kargu.

Era berean, La Caixa fundazioak Tolosako Udalari behar duen informazioa jakinarazi eta emango dio esku hartzen den lurraldeetan proiektuak duen bilakaerari buruz.

Hirugarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiten eta hitzarmena betetzen laguntzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, gutxienez, Tolosako Udalaren bi ordezkari eta La Caixa fundazioaren bi ordezkari osatua.

Jarraipen Batzordeari, besteak beste, honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Laneko plana eta alderdiek garatu beharreko eginkizunak definitzea, betiere, errespetatuta zentroetan laneko plana ezartzeko egutegia eta proiektu zein jarduerak gauzatzeko espazioen definizioa.
- b) Aurreikusitako jarduerak koordinatzea eta haien jarraipena egitea.
- c) Boluntariotzari buruzko gaietan lankidetzan aritzeko proposamenak aurkeztea.
- d) Dokumentu honetan adostutako lankidetzak baldintzak betetzen direla zaintzea.

Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko da, eta alderdietako edozeinek behar adina aldiz deitu ahal izango du.

Laugarrena.- Ebaluazioa

La Caixa fundazioak konpromisoa hartzen du parte-hartzaileen artean adinekoen zentroetan sustatutako jardueren ebaluazioa egiteko. Ebaluazio hori galdetegien bidez egingo da, eta ez da datu pertsonalik jasoko, garatutako jardueren jarraipena eta hobekuntza egiteko helburua izango dute soilik. Bildutako datuak Tolosako Udalarekin partekatuko dira.

Bosgarrena.- Hitzarmenaren zabalkundea

Edozein komunikabidetan hitzarmen honen ondoriozko jarduerari buruz egiten diren aipamenetan, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Tolosako Udalaren eta La Caixa fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza direla.

Dokumentu honetan jasotako eta batera sustatutako jarduerak hedatzeko elementuetan bi erakundeen irudi korporatiboa jarri beharko da.



Seigarrena.- Beste lankidetzak batzuk

Tolosako Udalak ez du beste lankidetzarik onartuko kreditu-erakundeekin edo haiekin elkartutako fundazioekin, baldin eta hitzarmen honi atxikitako zentroan xede bera badute.

Zazpigarrena.- Datu pertsonalen tratamendua

7.1. Parte-hartzaileen datuak

Esku-hartzaileen eta, hala badagokio, alderdi bakoitzaren kontura jarduten duten langile/laguntzaileen datu pertsonalak beste alderdiak tratatuko ditu, zerbitzuak emateko hitzartutako harremana kudeatzeko. Tratamenduaren oinarria kontratu-harremana betetzea izango da, eta harreman horrek irauten duen bitartean gordeko dira, baita ondoren ere, harreman horretatik erator daitezkeen erantzukizunak preskribatzen diren arte. Preskripzio-epe horiek amaitutakoan, datuak ezabatu egingo dira, edo, bestela, anonimizatu. Interesdunei honako hau jakinarazten zaie:

- a) Datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak alderdi sinatzaileak dira, eta datuak babes-teko ordezkariaren edo horietako bakoitzaren segurtasun-arduradunaren harremanetarako datuak honako hauek dira:
- La Caixa fundazioaren datuak babesteko ordezkariaren datuak: helbide elektronikoa: dpd@fundacionlacaixa.org; posta-helbidea: Avenida Diagonal 621 – 629, 08028 Bartzelona.
- b) Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarren erakundeei lagako, salbu eta hornitzaileen esku-hartzea behar denean dagokion alderdiari zerbitzu bat emateko, bai eta datu pertsonalak laga behar direnean ere legezko betebeharrak betetzeko. Era berean, ez dira erabaki automatizatuen xede ere izango.
- c) Aldeek Europako Esparru Ekonomikotik kanpo kokatutako hornitzaileen zerbitzuak kontratatu beharko balituzte, kontratazio hori datuak babesteko araudian ezarritako baldintza guztiak bete ondoren egin beharko da, datuen pribatasuna babesteko beharrezkoak diren bermeak eta babesak aplikatuta. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan datu-babesen delegatuarekin edo, hala badagokio, segurtasun-arduradunarekin, adierazitako helbideen bitartez.
- d) Eskubidea dute haien datu pertsonaletara sartzeko, datu okerrak zuzentzeko, beharrezkoak ez diren datuak ezaba ditzatela eskatzeko, datuen tratamenduaren aurka egiteko edo tratamendua mugatzea eskatzeko, edo datuak eramateko eskatzeko. Horretarako, mezu bat bidali beharko diote datuak babesteko ordezkariari edo alderdietako edozeinen segurtasun-arduradunari, adierazitako helbideetan.
- e) Datu pertsonalen tratamendua araudia urratzen duela uste badute, erreklamazio bat aurkez diezaioke datuak babesteko ordezkariari edo, hala badagokio, segurtasun-arduradunari, dagokionaren arabera, edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

Azkenik, datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzen dela bermatzeko, alderdiek konpromisoa hartzen dute egindako datu-tratamenduaren berri emateko harreman honen esparruan alderdien kontura jarduten duten interesdunei, enplegatu/laguntzaile diren aldetik.

7.2. La Caixa fundazioari jakinarazitako datu pertsonalak:

La Caixa fundazioak La Caixa fundazioaren Adinekoen Programan izena emateko aukera eskainiko die onuradun izan daitezkeenei. Horretarako, ez da erabiliko eskaintako zerbitzuaren azterketa egiteko erabiltzen den formularioa, baizik beste bat, eta bertan argi eta garbi adieraziko da helburua zein den. La Caixa fundazioak hitzarmen honen ondorioz bildutako datu pertsonalak tratatuko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa errespetatuz.



Onuradun potentzial batek adierazitako programan izena ematearen aldeko balorazioa egiten ez badu, bere datu pertsonalak ezabatu egingo dira.

Aldi berean, adierazitako komunikaziotik eratorritako datu pertsonalak jasotzeari dagokionez, La Caixa fundazioak informatzeko betebeharrak beteko du, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, eta beharrezkoak diren segurtasun- eta antolaketa-neurriak ezarriko ditu. Era berean, La Caixa fundazioak bermatzen du une oro beteko duela datu pertsonalak babesteko araudia, jarduketa honen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

La Caixa fundazioak ez dio inolaz ere jakinaraziko Tolosako Udalari La Caixa fundazioaren Adinekoen Programan izena emateko berariazko formularioaren bidez bildutako datu pertsonalik.

7.3. Alderdien erantzukizuna:

Hitzarmen honetako alderdiek adierazten dute indarrean den datu pertsonalak babesteko araudia aplikatuz eska dakizkiekeen betebeharrak guztiak beteko dituztela, eta haiek izango direla horren erantzule bakar eta oso. Halaber, beharrezkoak diren lege-, antolamendu- eta segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartzen dute, eta, gainera, beste alderdia kalterik gabe mantenduko dute edozein hirugarrenek (agintari eta erakunde eskudunak barne) eskatutako kalte-ordain eta/edo zehapenetatik.

Zortzigarrena.- Indarraldia

Sinatzen den unean jarriko da hitzarmen hau indarrean, atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2024ko urtarrilaren 1era, eta 2026ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Hasieran hitzartutako iraupena gorabehera, hitzarmena bi urte gehiagoz luzatu ahal izango da, alderdiek berariaz hala adosten badute eta, betiere, hitzarmena amaitu baino lehen.

Bederatzigarrena.- Aurretiatzko ebazpena

Hitzarmen hau aldez aurretik hutsaltzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- Alderdien batek klausularen bat ez betetzea.
- Alderdien arteko adostasuna.
- Alderdietako edozeinek salatzea.
- Horiek betetzea eragozten duten lege- edo erregelamendu-xedapenak indarrean sartzea.

Hamargarrena.- Lege aplikagarria eta men egitea

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako lege-xedapenaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera arautzen da.

LAUGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia izango da 2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa. Ondoren, bi aldeek adostasunarekin, bi urteko luzapena egiteko aukera izango da zortzigarren klausulan jasotakoari jarraiki.

BOSGARRENA.- Hitzarmena sinatzearekin batera, egungo formazio eskaintzaren informazioa zabaltzeko komunikazio ildoak aztertuko da La Caixa fundazioaren arduradunarekin, eta formazio eskaintza berriak ezartzeko proposamena landuko da, Iturriza elkartearekin eta Harizpe elkartearekin lankidetzan, egungo eskaintza zabaltzeko eta osatzeko.



SEIGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean xedaturikoarekin bat

ZAZIPGARRENA.- Erabaki hau Tolosako Udalaren Idazkaritza, Kontuhartzailletza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei, eta Iturriza eta Harizpe elkarteei jakinaraztea.

4. ONARTZEA ASFALTOS URRETXU SA-RI 2018KO ASFALTATZE-LANEN OBRA KONTRATUARI LOTUTAKO 12.396,28€-KO BERMEA ITZULTZEA.

IKUSIRIK

AURREKARIAK

Kontratua: 2018ko asfaltatze plana
Esleipena. 2018ko azaroaren 18ko Gobernu Batzarra
Esleipenduna. Asfaltos Urretxu SA
Jarritako bermea: 12.396,28 € (2018-JBAL-000025)

KONTUAN HARTURIK

AZTERKETA TEKNIKOA

Esleipendunak kontratua behar bezala bete du, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan ezarritako baldintza guztiak bete ditu. Beraz, adierazitako kontratua erabat bete da.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenarekin bat etorritik, bermea itzuli daiteke.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- ASFALTOS URRETXU SA enpresari 12.396,28 €-ko bermea itzultzea

BIGARRENA.- Kontuhartzailetzari erabakiaren berri ematea.



5. ONARTZEA PARKING LARRAMENDI ABEERI 7 R E.7 "GOROSTIDI-VOITH" EREMUKO 2. PARTZELAREN ERDIKO PLAZAN LURPEKO APARKALE-KUAK ERAIKITZEKO KONTRATUARI LOTUTAKO 62.863,15€-KO ABALA ITZULTZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Hirigintza saileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

AURREKARIAK

2009ko urriaren 16an, 2009/1988 Alkatearen Dekretuaren bidez RE.7 Gorostidi-Voith eremuko 2. partzelaren lurpeko aparkalekuen proiektua onartu zen.

2009ko azaroaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrek 2. partzelaren lurpeko aparkalekuen eraikuntza behin-behinekoz adjudikatu zion Construcciones Amenabar SAK eta Larramendi Madalen Promozioak SL-k sortutako ABEEri. Horrekin batera, 62.863,15 €ko behin betiko bermea eskatu zitzaion. Errekerimendua betetzeko, 2009ko abenduaren 10ean, 1998.00616-89 abala aurkeztu zuten Udalean.

2012ko otsailaren 7an, EZ-7 Voith-Gorostidi eremuko 2 partzelako baso zentralako garaje proiektuko obraren harrera akta sinatu zen. Obraren garbiketa orokorra falta zela adierazi zen, baita berme-aldia urtebetekoa zela ere.

2013ko apirilaren 18an, 4696 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen.

2014ko maiatzaren 30ean, 6285 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen.

2015eko apirilaren 29an, 1395 iteera-erregistro zenbakiarekin, Udalak abala itzultzeko bi baldintza jarri zizkion:

- Instalazioak legeztatzeari buruzko dokumentazioa entregatzea, bai eta instalazioak martxan jartzeari buruzkoa ere (elektrizitatea, igogailua, aireztapena, suteak...), proiektu elektrikoa barne.
- Konponbidea ematea -1 sotoko garajeetara sartzeko barreraren bertikalean atzemandako itoginari.

2016ko otsailaren 15ean, 1398 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen.

2017ko martxoaren 13an, 2772 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen.

2017ko abuztuaren 10ean, 7278 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen.



2017ko azaroaren 7an, 3633 irteera-erregistro zenbakiarekin, Udalak gogorarazi zion Construcciones Amenabarri abala itzultzeko bi baldintza jarri zizkiola 2015eko apirilaren 29an.

2022ko ekainaren 13an, 6995 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Construcciones Amenabarrek abala itzultzeko eskaera egin zuen (2023H3440013 espediente zenbakia).

AZTERKETA TEKNIKOA

Aipatutako espedienteari dagokionez, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 95. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako zenbatekoko bermea ezarri zen. 102. artikulua lehen bi puntuek, bermeak itzultzea eta ezereztzea, honako hau ezartzen dute:

“1. Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko berme-epea amaitu eta dagokion kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua kontratistaren errurik gabe suntsiarazi dela adierazi arte.

2. Kontratuaren likidazioa onartu eta berme-epea igaro ondoren, erantzukizunik ez badago, eraturako bermea itzuliko da edo abala edo kausio-asegurua ezereztuko da.

Itzultzeko erabakia berme-epea amaitu eta bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi beharko zaio interesdunari. Epe hori igarotakoan, administrazioak zor duen zenbatekoa ordaindu beharko dio kontratistari, gehi epe hori amaitzen denetik bermea itzuli arte igarotako epeari dagokion diruaren legezko interesa, baldin eta bermea administrazioari egotz dakioken arrazoren batengatik ordaindu ez bada.”

Obra jasotzerakoan garbiketa orokorra falta zela adierazi zen. 2013ko otsailean, urtebeteko berme-epea igaro zen eta tarte horretan Udalak ez zuen arazorik aurkitu obra behar bezala ez egiteagatik.

2015ean, berriz, Udalak berme itzulketarako bi baldintza jarri zizkion, baina bermealdia igarota zegoen. Beraz, esleipendunari ezin zitzaion baldintza gehigarriak jarri bermea itzultzeko.

Hortaz, bermea itzultzeko legez ezarritako epea igarota eta erantzukizunik gabe, bermea itzultzea dagokio.

ONDORIOA

Aurrekoa kontuan hartuta, aipatutako bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut.

KONTUAN HARTURIK

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak eta hirigintzako teknikariak egindako aldeko txosten teknikoak, honako proposamena egiten diot Tokiko Gobernu Batzordeari.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 7 R E.7 "Gorostidi-Voith" eremuko 2. partzelaren erdiko plazan lurpeko aparkalekuak eraikitzeako kontratuari lotutako 62.863,15 €-ko abala itzultzea Parking Larramendi ABEEri.

BIGARRENA.- Kontuhartzaitzari erabakiaren berri ematea.

6. **ONARTZEA SUMALIM SL-RI TOLOSAKO IURRAMENDI PASEALEKUAN DAUDEN BI HAUR PARKEEN MANTENTZE-LANA EGITEKO MATERIAL-HORNIDURA KONTRATUARI LOTUTAKO 2.179,01€-KO BERMEA ITZULTZEA.**

IKUSIRIK

LEHENA.- Hirigintza saileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

KONTRATUAREN BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEKO KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.

<i>Espedientea</i>	2018HASI0001
<i>Xedea</i>	<i>Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko materialen hornidura</i>
<i>Esleipenduna</i>	Sumalim SL
<i>Kontratuaren data</i>	2019ko otsailaren 20a
<i>Bermearen zenbatekoa</i>	2.179,01 €



Aipatutako espedienteari dagokionez, non, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako zenbatekoko behin betiko bermea ezartzen zen, eta kontratu horren berme-epea mugaegunera iritsi denez.

ADIERAZTEN DUT

Esleipendunak kontratua behar bezala bete duela, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan ezarritako baldintza guztiak bete dituela, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete dela. Era berean, ezarritako berme-epea amaitu da.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aipatutako behin betiko bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut.

KONTUAN HARTURIK

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak eta hirigintzako teknikariak egindako aldeko txosten teknikoa, honako proposamena egiten diot Tokiko Gobernu Batzordeari.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko material-hornidura kontratuari lotutako 2.179,01 €-ko bermea itzultzea Sumalim SL-ri.

BIGARRENA.- Kontuhartzailtzari erabakiaren berri ematea.



**7. «13 LASKOAIN» ESPARRUKO «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37»
AZPIESPARRUKO JABE BAKARREKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUA.
BEHIN BETIKO ONESPENAREN ONDOTIK AURKEZTUTAKO BERRAZTER-
TZE-ERREKURTSOA EBAZTEA.**

I K U S I R I K

LEHENA.- 2024 urriaren 4an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkaturik, Tolosako Udalean erregistro elektronikoa bitartez (2024-12675 sarrera zenbakia) «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua aurkeztu zuela.

BIGARRENA.- 2024ko urriaren 11n, hirigintza buruak aldeko txostena (JM24-0064), baldintzatua, egin zuela eta 2024ko urriaren 18an, berriz, hirigintzako tekniko juridikoak (MAU240133.1)

HIRUGARRENA.- 2024ko urriaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak, erabaki zuela hasierako onespenera ematea «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuari; behin betiko onespenerako zenbait zuzenketa aurkezteko baldintzapean.

LAUGARRENA.- 2024ko urriaren 29an, udalak hartutako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaela.

BOSGARRENA.- 2024ko urriaren 31n, erabakia GAO (211zk.) argitaratu zela eta 2024ko azaroaren 5ean, berriz, El Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian. Hala, iragarkia udaleko iragarki-oholean egon zela ikusgai 2024ko urriaren 31tik abenduaren 5a bitarte; baita, udaleko egoitza elektronikoa ere.

SEIGARRENA.- 2024ko abenduaren 16an, Jaitzubia Barri SLri jendaurrekoan aurkeztutako alegazioa igorri zitzaela.

ZAZPIGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 13an, hirigintzako tekniko juridikoak jendaurrekoari buruzko txostena (MAU25003) egin zuela eta udaleko idazkari akzidentalak horren gaineko ziurtagiria egin zuela. Horren arabera, jendaurrekoan alegazio bat aurkeztu zela: 2024ko azaroaren 28an (sarrera zk. 2024-15016 zk.), Gonzalo Arrúe Portu letratuak, San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakietako jabeekideen erkidegoak ordezkaturik, aurkeztutakoa.

ZORTZIGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 13an, Jaitzubia Barri SLk udalean aurkeztutako alegazioen inguruko txostena aurkeztu zuela (sarrera erregistro zk. 2025-484).



BEDERATZIGARRENA.- 2025ko urtarrilaren 21ean, Jaitzubia Barri SLk, bere legezko ordezkariak ordezkaturik, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren testuategina aurkeztu zuela (sarrera erregistro zk. 2025-933) behin betiko onespenerako. Eta, 2025eko urtarrilaren 23an (sarrera erregistro zk. 2025-1052), «04.1 planoa» aurkeztu zuten testuateginaren osagarri gisa.

HAMARGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrek, besteak beste, erabaki zuela hasierako onespeneraren ondoren aurkeztutako alegazioak ezestea eta behin betiko onspena ematea «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuari.

HAMAIKAGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 31n, udalak hartutako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaizela.

HAMABIGARRENA.- 2025eko otsailaren 19n, erabakia GAO (33zk.) argitaratu zela, 2025eko otsailaren 20an, berriz, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta, 2025eko otsailaren 24an, El Diario Vascon. Hala, iragarkia udaleko iragarki-oholean egon zela ikusgai 2025eko otsailaren 19tik martxoaren 19a bitarte; baita, udaleko egoitza elektronikoan ere.

HAMAHIRUGARRENA.- 2025eko otsailaren 19an (sarrera erregistro zk. 2025-2553), Gonzalo Arrúe Portu letratuak, San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakietako jabeekideen erkidegoak ordezkaturik, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuela.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:

- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 art.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikulak.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.
- *Ordezko gisa:*



- Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
 - Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.
 - Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.
- B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren behin betiko onespeneraren ondotik aurkeztu den berraztertze-errekurtsoak honakoa jasotzen duela:

- SAN FRANTZISKO 35, 39A ETA ORIA KALEA 6 ZENBAKIETAKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK Tolosako Udalean 2025/02/19an (sarrera zk. 2025-2553) aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa, Gonzalo Arrúe Portu letraduak ordezkaturik.

Errekurtso-jartzaileak aurkeztutako idatzian adierazten du 2024ko azaroaren 28an aurkeztutako alegazio-idatzian jasotakoa baieztatu eta berresten duela. Alabaina, errekurtsoko bigarren alegazioan bost puntu azpimarratzen dira. Laburbilduz, honakoak:

A).- Birpartzelazio-proiektuaren oinarri den xehetasun azterlana deuseza dela ulertuta, izapidetzen ari den proiektua ere deuseza dela adierazten da. Hala, aipatzen da udala jakitun dela errekurtso-jartzaileak adierazitako xehetasun azterlanaren kontra alegazioa aurkeztu eta auzitegira ere jo duela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarritz. Hori horrela, adierazten da udalak zuhurtziaz jokatzuz birpartzelazio-proiektua eten eta hausnarketa handiagoaz aztertu beharko lukeela; ondoren ondorio negatiboak saihesteko.

B).- 2024ko azaroaren 28ko idatzian alegatu bezala, berriz ere azpimarratzen da San Frantzisko kaleko 35. zenbakiko erkidegoaren sarbide arrapalaren eta eragiten dion zortasunaren gaia. Hala, beste behin, aipatzen da birpartzelazio-proiektuan ez dela Plan Orokorrean berariaz jasotako zortasuna jaso eta, hori egin ezean, aipatutako Plan Orokorra de facto aldatzea ekarriko lukeela, legez kanpoko tresna eta prozedura baten bidez, eta, beraz, deuseza izango litzatekeela. Ondorioz, eskatzen da zortasuna birpartzelazio-proiektuan barneratzea.

C).- 2024ko azaroaren 28ko idatzian alegatu bezala, berriz ere aipatzen da izapidetutako birpartzelazio-proiektuak eremuaren arau partikularraren aurkakoa izateaz gain, egiturazko zatiaren aurkakoa ere badela; 2024ko azaroaren 28ko alegazio-idatzian baieztatu bezala.

- Eraikigarritasunari buruz, laburbilduz, argudiatzen da aldaketak Planean ezarritakoa (2.847 m²) baino azalera handiagoa aurreikusten duela sestra gainean (3.059,25 m²). Horrekin batera, adierazten da guztizko azalera askoz ere handiagoa dela lehenengo blokeko beheko solairua zein lehenengo eta bigarren solairuak orain "zuzkidura



publikoak” direla kontuan hartuta zenbaketatik kanpo utzi direlako. Adierazitakoa arrazoitzeko bi taula atxikitzen dira. Gainera, aipatzen da adierazitako azalerei lehenengo blokeko atikoaren oinplanoaren azalera ere gehitu behar dela.

- Eraikuntzen formei dagokionez, laburbilduz, adierazten da xehetasun-azterketaren eta birpartzelazio-proiektuan ezarritako eraikinen forma ez dela inolaz ere inguruko eraikinen baliokidea. Hala, hori irudikatzen duten zenbait krokis eta argazki txertatzen dira.

- Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoari dagokionez, Plan Orokorrak jasotakoa oinarri hartuta, aipatzen da birpartzelazioak askoz eraikigarritasun handiagoa aurreikusten duela. Baieztapen hau taula batekin osatzen da eta, hala, gehitzen da esanez taula horri, gainera, aurreko eraikinen goiko solairuaren (laugarrena) 199 '07 m2-ko "etxebizitza libre erabili" horretarako sarbidea ezartzeko beharrezkoa den azalera gehitu behar zaiola; izan ere, sarbide horrek pribatua eta propioa izan beharko duela nahitaez, eta ez zuzkidura-elementuaren bidez, eta horrek, gutxienez, 60 m2 gehitzea dakarrela. Eta, beraz, argudiatzen da ez dela betetzen egiturazko preskripzio hori.

- Altuerari dagokionean, berriz, Plan Orokorrak jasotakotik abiatuta, aipatzen da xehetasun-azterketak eta birpartzelazioaren aurreikuspenak ingurune altueretatik erabat aldetuko direla. Hori horrela, aurretiaz aipatu bezala, baieztatzen dute xehetasun-azterketaren aldaketak eta birpartzelazioak funtsean aldatzen dituztela Plan Orokorraren zenbait egitura-xedapen, eta, ondorioz, baliogabeak direla.

D).- Aurretiaz adierazitakoa aintzat hartuta, baieztatzen da xehetasun azterlanak zein birpartzelazio-proiektuak proposatzen dituzten aldaketak oso funtsezkoak direla. Hori horrela, argudiatzen da birpartzelazioa ezin dela xehetasun-azterketa baten ondoren zuzenean onartu; adierazitako funtsezko aldaketa hori ahalbidetuko duen aldez aurreko plangintza-tresnarik gabe. Bada, aipatzen da hiri-lurzoru finkatugabe baten aurrean gaudenez, eta, gainera, funtsezko aldaketa baten aurrean, birpartzelazioa ezin dela onartu hemen nahi den bezala, plangintza funtsean aldatzen duen xehetasun-azterketa soil batekin. Beraz, argudiatzen da aldez aurretik HAPOn aldaketa bat edo plan berezi bat onartu beharko litzatekeela.

E).- Azkenik, gaineratzen da ez dagoela birpartzelazio-proiektua babesten duen urbanizatze jarduketa programarik; nabarmenduz handia dela lege-oinarririk eza. Hala, 2025eko otsailaren 3ko Zinegotzi Delegatuak emandako Dekretua aipatzen da.

Adierazitako guztiarengatik, errekurso-jartzaileak **ESKATZEN** du aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa aurkeztutzat har dadila Tolosako Udalak 2025eko urtarrilaren 28an hartutako erabakiaren aurka, zeinak behin betikoz onetsi zuen «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua; aurka eginez ordezkaturako jabekideen elkartearen lehenengo alderdiari, altuerari, eraikigarritasunari eta argiei zein bistei dagokionez, baita beste alderdi batzuei dagokionez ere; ez dadila onartu parametro horiek Plan Orokorrera egokitzen ez diren bitartean, eta, bestela, birpartzelazioa deuseztat jo dadila; San Frantzisko 35eko jabekide erkidegoko garaje-plantaren zortasuna sartzea erabaki dadila; eta, nolanahi ere, lege ezarritako prozedurari jarraitzea babesgabetasunik sortu gabe.



LAUGARRENA.- Adierazitako berraztertze-errekurtsoaren aurrean egiten den
AZTERKETA JURIDIKOA:

Ikusirik espediente honen baitan aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren edukia, hein handi batean, aurretik «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespenean jabekide erkidego horiek aurkeztutako alegazioen zein jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespenearen ondotik aurkeztutako alegazioen oso antzekoa dela, txosten hau izenpetzen duenak aurretik aurkeztutako alegazio horiek erantzuteko egindako txostenera lotzen da eta bertan jasotakotik abiatzen da.

▪ **Bigarren alegazioko A).- puntua.**

Kontuan izanik «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespenean San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 4 eta 6 zenbakietako jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioa eta auzitegira jo dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriz, puntu honetako eskaera nagusia da udalak birpartzelazio-proiektua etetea.

Errekurtso-idatzian ondo adierazi den bezala udala jakitun da aipatutako jabekide erkidegoek auzitara jo dutela «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen behin betiko onespen erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriz. Halabaina, garrantzitsua da aipatzea kasu horretan errekurtsogileek ez dutela prozesuaren xede den egintzaren ez eteterik ezta kautela-neurririk eskatu. Orain aurkeztutako errekurtsoan ere ez da zehaztu etetea noiz arte luzatu beharko litzatekeen edota kautela-neurririk hartu beharko litzatekeen.

Betearazpena eteteari dagokionez, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 117. artikulua bere lehenengo bi puntuetan adierazten duenez, edozein errekurtso aurkezteak ez du eteten aurkaratutako egintzaren betearazpena, xedapenen batean bestelakorik adierazten ez bada. Adierazitako artikulua, ordea, gehitzen du esanez, adierazitakoa gorabehera, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak eten ahal izango duela aurkaratutako egintza, ofizioz edo errekurtso-jartzaileak eskaturik, aurretik modu aski arrazoituan haztatuta, alde batetik, eteteak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari edo hirugarren batzuei, eta, bestetik, errekurtso-jartzaileari zer kalte egiten zaion egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada: betearazpenak kalte erreparaezin edo erreparagaitzak ekartzea edo aurkaratzearen oinarria adierazitako legearen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.



Aipatutako artikulua arautakoaren arabera, lehenik, adierazi behar da udala ez dagoela derrigorturik aurkaratutako egintzen betearazpena eteteko eta, etetekotan, modu arrazoituan haztatuta egin behar duela; hau da, birpartzelazio-proiektua behin betikoz onetsitako egintza eteteak ze kalte eragingo lukeen, alde batetik, interes publikoarengan edo hirugarrenengan eta, bestetik, errekurtsio-jartzaileengan, egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz. Azken batean, ponderatu beharko litzateke jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren behin betiko onespeneraren betearazpena eteteak ze ondorio, barne hartuta ekonomikoak, ekarriko litzkiekeen Jaitzubia Barri SL enpresa sustatzaileari zein San Frantzisko Enea Etxebizitza Kooperatibako 25 bazkideri eta San Frantzisko 35 eta 39A zein Oria kalea 4 eta 6 zenbakiko atarietako jabe kide erdidegoei.

Hori horrela, nahiz eta datu ekonomiko jakinik ez izan, arrazoizkoa da pentsatzea enpresa sustatzailearentzat zein eraiki nahi diren etxebizitza berrien 25 balizko erosleentzako betearazpena eteteak kalte ekonomiko nabarmena ekarriko liekeela; etorkizunean dagozkien kalte-ordain ekonomikoak erreklamatzeko aukerarekin. Gainera, kontuan izanda, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. Artikuluaren arabera birpartzelazio-proiektuak ez duela antolamendua aldatzen, artikulua horrek esleitzen dizkion eginkizunetara mugatzen baita, jabe bakarreko birpartzelazioa behin betiko onetsi eta Jabetza Erregistroan inskribatzeak ez du kalte erreparaezin edo erreparagaitzarik ekartzen.

Bestalde, aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ebazten duen epaia noiz izango den eta epaileak zer erabakiko duen jakiterik ez dagoenez, hau da, xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketa erabat deuseza deklaratu duen ala ez, ez da proportzionala ez eta arrazoi nahikorik ikusten une honetan errekurtsio-jartzaileek eskatutako etetea aplikatzea. Ondorioz, eskaera ezetsi egin behar da.

▪ Bigarren alegazioko B).- puntua.

Puntu honetako eskaera nagusia da birpartzelazio-proiektuan Tolosako HAPOn «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparrurako fitxa urbanistikoan berariaz jasotako sarbide-eta bide-zortasuna barneratzea. Hala, hasierako onespeneraren ondotik aurkeztutako alegazioaren erantzunean adierazi bezalaxe, orain ere azpimarratzen da 2024ko urriaren 14an, Jaitzubia Barri SL enpresa sustatzaileak aurkeztutako Testu Bateginean jada egokitua zegoela San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko lerroakadura; etorkizunean San Frantzisko 35 zenbakiko jabe kideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan zedin. Hori horrela, behin betiko onespenera testu bategin horri eman zitzaion. Beraz, errekurtsiogileak baieztatutakoa ez da zuzena; birpartzelazio-proiektuko testu bategineko 44. orrian P02 lursail-orubeari dagokionez kargen atalean honakoa baitio:

«Los sótanos de la edificación a construir, con sus accesos, quedan gravados con servidumbre de acceso/paso a favor de la totalidad de los sótanos existentes y/o proyectados de las parcelas y espacios colindantes públicos y privados (San Francisco Atzekalea 39A; Paseo San Francisco 35; parcelas y terrenos ubicados en el patio de manzana ubicado entre las edificaciones del Paseo Pedro de Tolosa, la calle Oria y San



Francisco Atzekalea; etc.). De esa manera, a los sótanos existentes y/o proyectados en estas parcelas y terrenos podrá accederse a través de aquel sótano y del acceso al mismo. Sin perjuicio de su obligación de contribuir a los costes de construcción de los accesos y a su mantenimiento».

Beraz, baieztatu daiteke birpartzelazio-proiektua bat datorrela indarrean dagoen hirigintza-antolamenduekin eta, beraz, betetzen duela errekursogileak eskatutakoa; ondorioz, aurkeztutako dokumentuan ez da aldaketarik egin behar. Hortaz, eskaera ezetsi egin behar da.

▪ **Bigarren alegazioko C).- puntua.**

Puntu honetan, 2024ko azaroaren 28ko idatzian, hau da, birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespeneren ondoren aurkeztutakoa, alegatu zen bezala, errekursogileak berriz ere aipatzen du izapidetutako birpartzelazio-proiektuak eremuaren arau partikularren aurkakoa izateaz gain, egiturazko zatiaren aurkakoa ere badela. Hala, xehetasun-azterketan zein birpartzelazio-proiektuan jasotzen den eraikigarritasunari, eraikuntzen formei, bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoari eta altuerari buruzko aurkako argudioak ematen dira.

Birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioan erantzun zen modu berean, orain ere aipatu behar da behin betikoz onetsitako birpartzelazio-proiektuak xehetasun-azterketaren aldaketaren behin betiko onarpenean jasotako antolamendu bera jasotzen duela. Birpartzelazio-proiektuak indarrean dagoen legeriaren arabera garatu besterik ez du egiten aurreikusitako antolamendua, ezin baitu alde batera utzi. Beraz, puntu honetan azaldutako gaiak ez dira birpartzelazio-proiektuaren objektu; izan ere, proiektu horren xedea ez da hirigintza-antolamendu eta, gainera, ez du inolako eraikuntzarik baimentzen. Ondorioz, eskaera ezetsi egin behar da.

▪ **Bigarren alegazioko D eta E).- puntua.**

Aurreko puntuetan aipatutakoa kontuan izanik, errekursogileak D) puntuan baieztatzen du xehetasun azterlanak zein birpartzelazio-proiektuak proposatzen dituzten aldaketak oso funtsezkoak direla eta, beraz, birpartzelazioa ezin dela xehetasun-azterketa baten ondoren zuzenean onartu; adierazitako funtsezko aldaketa hori ahalbidetuko duen alde aurreko plangintza-tresnarik gabe. Beraz, argudiatzen da alde aurretik HAPOn aldaketa bat edo plan berezi bat onartu beharko litzatekeela. E) puntuko argudio nagusia, berriz, da ez dagoela birpartzelazio-proiektua babesten duen urbanizatze jarduketa programarik.

Puntu honetan berriz ere adierazi behar da espediente honen objektua birpartzelazio-proiektua dela eta, beraz, aurreikusitako antolamendua garatzeko tresna den heinean, ez dagokiola espediente honi aztertzea xehetasun-azterketaren aurretik izapidetu beharreko plangintza-tresnaren beharra eta mota edota aurretik urbanizatze jarduketa programa izapidetzeko beharra. Beraz, adierazitako eskaerak une honetan ezetsi egin behar dira.



BOSGARRENA.- «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua behin betiko onespeneraren ondotik aurkeztu den berraztertze-errekurtsoa erantzuteko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Tolosako Udaleri dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaioela 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ebaztea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- EZESTE 2025eko otsailaren 19an (sarrera zk. 2025-2553 zk.), Gonzalo Arrúe Portu letratuak, San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakietako jabeakideen erkidegoak ordezkatzuz, AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren behin betiko onespenerari dagokionez, azterketa juridikoan adierazitako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Erabaki hau errekurtsio-jartzaileari zein enpresa sustatzaileari jakinaraztea eta berri ematea eragindako jabe zein interesdunei.

8. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2025/963 Dekretua: 2025/8 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

8. zenbaki duena, 1.186.638,57 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

8. zenbaki duena, 1.186.638,57 eurokoa.

